

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

Araua: **2008/102/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko azaroaren 19koa, Kontseiluaren 79/409/EEE Zuzentaraua, basoko hegaztiak kontserbatzeari buruzkoa, aldatzen duena, Batzordearen exekuzio-eskumenen baitan.**

---

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*DIRECTIVA 2008/102/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 19 de noviembre de 2008, que modifica la Directiva 79/409/CEE del Consejo, relativa a la conservación de las aves silvestres, en lo que atañe a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión*» (Diario Oficial de la Unión Europea, L 323/31 de 03/12/2008)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

## ZUZENTARAUAK

### **2008/102/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko azaroaren 19koa, Kontseiluaren 79/409/EEE Zuzentaraua, basoko hegaztiak kontserbatzeari buruzkoa, aldatzen duena, Batzordearen exekuzio-eskumenen baitan**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 175. artikuluko 1. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Ikusita Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena <sup>(1)</sup>,

Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin ondoren,

Tratatuaren 251. artikuluan <sup>(2)</sup> araututako prozedurari jarraiki,

Hauek kontuan hartu dituzte:

(1) 79/409/EEE Zuzentaruak <sup>(3)</sup> ezarritakoaren arabera, neurri jakin batzuk 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiari jarraiki hartu behar dira. Erabaki horretan ezarrita dago zer prozedura bete behar dituen Batzordeak berari dagozkion eskumenak beteazteko <sup>(4)</sup>.

(2) Kontseiluaren 2006/512/EE Erabakiak <sup>(5)</sup> 1999/468/EE Erabakia aldatu zuen. Lehenengoaren bitartez, Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera hartutako oinarritzko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko zer neurri orokor hartu behar diren kontrolatzen duen arautze-prozedura ezarri zen. Zenbaitetan, elementu horietako batzuk ezabatuz edo, egintza funtsezkoak ez diren beste elementu batzuekin osatuz.

(3) 2006/512/EE Erabakiari dagokionez, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen <sup>(6)</sup> Adierazpenaren arabera, Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozeduren arabera hartu eta indarrean dauden egintzetan kontrolatzen arautze-prozedura aplikatu ahal izateko, egintza horiek aplikatu beharrekoak diren prozeduren arabera hartu behar dira.

(4) Komeni da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea 79/409/EEE Zuzentaruaren eranskin jakin batzuk alda ditzan, aurrerapen zientifikoak eta teknikoak oinarri hartuta. Neurri horiek orokorrak direnez eta 79/409/EEE Zuzentaruaren zenbait eranskinetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez —funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatuz—, 1999/468/EE Erabakiaren 5 *bis* artikuluan agindutako kontrolatzen arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(5) Horrenbestez, 79/409/EEE Zuzentaruak aldatu egin behar da.

(6) Zuzentaru honen bitartez 79/409/EEE Zuzentaruaren egin beharreko aldatetarako teknikoak direnez eta komitearen prozeduran soilik eragiten dutenez, Estatuek ez dituzte, ezinbestez, beren zuzenbidean txertatu behar. Ondorioz, ez da beharrezkoa horretarako xedapenik ezartzea.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

---

(1) C 211 EO, 2008.8.19koa, 46. or.

(2) Europako Parlamentuaren 2008ko uztailaren 8ko Irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak 2008ko urriaren 27an hartutako Erabakia.

(3) L 103 EO, 1979.4.25ekoa, 1. or.

(4) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.

(5) L 200 EO, 2006.7.22koa, 11. or.

(6) C 255 EO, 2006.10.21ekoa, 1. or.

2008/102/EE Zuzentaruak (EBren Egunkari Ofiziala, L 323, 2008/12/03koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

*1. artikulua*

79/409/EEE Zuzentaraua honela aldatuta gelditzen da:

1) 15. artikulua testu honek ordeztu du:

«15. artikulua

Behar adina aldaketa egingo dira aurrerapen teknikora eta zientifikora egokitzeko I. eta V. eranskinak, bai eta 6. artikuluan, 4. paragrafoko bigarren lerrokadan ezarritako aldaketak ere. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek 17. artikuluan, 2. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartu behar dira.»

2) Testu honek ordeztu du 17. artikulua:

«17. artikulua 1. Komite batek aholkatuko du Batzordea, aurrerapen teknikora eta zientifikora egokitzen laguntzeko.

2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua izango dira aplikagarriak, eta haren 8. artikuluan xedatutakoa bete egingo da.»

*2. artikulua*

Erabaki hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeiei eguneko epean jarriko da indarrean.

*3. artikulua*

Estatu kideak dira zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon emana, 2008ko azaroaren 19an.

*Europako Parlamentuaren izenean Presidentea* H.-G. PÖTTERING  
*Kontseiluaren izenean Presidentea* J.-P. JOUYET